

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA ETA LEGE-ARAU BIDEA

1. artikulua.- Irabazi-asmorik gabeko "SAR DADILA KALABAZAN SDK Euskara, Aisia eta Kultura elkarte" izeneko elkarte eratu da, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Elkartei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorritz.

Elkartea arau hauen mende egongo da: aipatutako elkartei buruzko legeak, estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira), elkartearen gobernu-organismoek behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.- Elkartearen **HELBURUAK** honako hauek dira:

- Momentuko aisialdi heziketa beharrei erantzutea eta bide batez espazio zabal honen eskasiak sortzen dituen arazoei aurre egitea.
- Giza harremanak sendotzea norberaren identitatea finkatzeko eta garrantzitsuak diren hainbat balore txertatzeko bideak eta honetarako bitartekoak ezartzea.
- Aisialdian kokatuz eta ekintza ezberdin eta atseginen bidez euskara esparru guztietara gizarteratzea, gehienbat haur eta gazteei kulturaz eta hizkuntzaz euskalduna izango den giroa eskainiz (arnasguneak).
- Aisialdi eragileen artean (elkarateak, instituzioak, enpresak, taldeak, jaialdiak, kultur ekitaldiak, ikastaroak, formazioak, hitzaldiak, lehiaketak, topaketak, udalekuak zein gazte eta helduentzako aisialdirako ekintzak sustatu, antolatu, kudeatu eta behar diren baliabideak lortu eta erabiltzea.
- Familiei, hezitzaileei, arduradunei... aisialdia eta euskararen inguruko formakuntza zein lantegiak eskaintzea.
- Euskal jendartearen beharrezkoak diren euskararen ezagutza, motibazio eta erabilera zein erdaldunak euskara erakartzeko ekimenak sustatu eta hedatzea. Euskaltzaleen saretza artikulatu eta horretarako euskalgintzan lanean diharduten edo interesa izan dezaketen entitateen ezagutza, elkartrukea eta lankidetzak bultzatu eta beraien lana errazteko behar diren ekimenak antolatu.

Helburu horiek lortzeko, **JARDUERA** hauek egingo dira, ezarritako legezko betekizunak bete ondoren:

- Haur eta gazteen aisialdian euskararen presentzia bermatu eta areagotzeko jarduerak eta programak antolatu, kudeatu eta dinamizatzea.
- Aurreko asmoak lortzeko helburuz behar diren, sentsibilizazio kanpainak, jaialdiak, kultur ekitaldiak, ikastaroak, formazioak, hitzaldiak, lehiaketak, topaketak, udalekuak zein gazte eta helduentzako aisialdirako ekintzak sustatu, antolatu, kudeatu eta behar diren baliabideak lortu eta erabiltzea.
- Hizkuntza eta aisialdi zerbitzuak eskaintzea.
- Beste elkarte edo entitateekin elkarlanean aritu zein hitzarmenak bultzatu eta sinatzea.
- Elkarateak aurrera daramatzan jarduera ezberdinetan, nahiz bere baitako funtzionamenduan, nahiz beste pertsona edo erakundeekiko harremanetan erabiliko duen hizkuntza euskara izango da.

Aurreko paragrafoan azaldutako jarduerak gorabehera, elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:

- Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu.
- Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.
- Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan.



Nahi izanez gero, J0D0Z-T1Q9N-08Q5 bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1Q9N-08Q5 en la sede electronica <http://euskadi.eus/localizador>

EGOITZA SOZIALA

3. artikulua.- Hona elkartearen helbide nagusia: Pedro Asua Kalea 2 zk 3 solairua 01008 Vitoria-Gasteiz.

Elkarteak beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorrak hala erabakitzen badu.

LURRALDE-EREMUA

4. artikulua.- Hemen, lurralde-eremu honetan, garatuko ditu bere funtzioak elkarteak: Euskararen eremu osoa, nagusiki GASTEIZ eta ARABA.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.- Elkarteak iraunkorra izateko eratu da, eta IV. kapituluan esaten den bezala ezohiko batzar orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legeetan aurreikusitako arrazoiren batengatik.

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkarteko oinarritzko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

BIGARREN KAPITULUA

GOBERNU- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. artikulua.- Elkartearen agintea eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku egongo da:

- Bazkideen Batzar Orokorra izango da organo gorena.
- Zuzendaritza Batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organoa iraunkorra.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua: Batzar Orokorra, bazkide guztiek osatua, bazkideen borondatea adierazteko organoa da.

Hona Batzar Orokorraren ahalmenak:

- a) Elkartearen jardura-plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkarteak desegitea.
- f) Presidentea, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea.
- g) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- h) Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- i) Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea, hala komeni bada.
- j) Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak aginte-organismoari eskuordetu diezaioke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- k) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- l) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. artikulua.- Batzar Orokorra ohiko eta ezohiko bilkuretan bilduko da.

9. artikulua.- Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. artikulua.- Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran, bere ekimenez edota bazkideen %.25ek eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira, baina, nolanahi ere, honako gaiak aztertze eta erabakitzeko bilduko da:

- a) Estatutuak aldatzeko.
- b) Elkarreak desegiteko.

11. artikulua.- Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira; bilkuren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez hamabost egun pasatu beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tartea utzi beharko da.

Batzar orokorrak -ohikoak nahiz ezohikoak- deialdian balio osoz eratuta geratuko dira lehenengo deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen herena bertaraten bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.- Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuena baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Nolanahi ere, batzarrean daudenen edo ordezkatuena gehiengo osoa (erdia+1) beharko da gai hauen inguruko erabakiak hartzeko:

- a) Elkarrea desegitea.
- b) Estatutuak aldatzea.
- c) Ondasunak erabili edo besterentzea.
- d) Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.

13. artikulua.- Bazkideek edozein bazkideren utzi dezaketen beren ordezkaritza, Batzar Orokorrera joateari dagokionez. Ordezkaritza hori emateko baimena idatzirik egin beharko da, eta batzordeko idazkariak saioa hasi aurretik eduki beharko du. Elkarrearen egoitza dagoen herritik kanpo bizi diren bazkideek ordezkaritza beste norbaiten esku uzteko agiria postaz bidali dezakete.

Bazkide bakoitzak bost bazkide ordezkatu ahal izango ditu, gehienez ere.

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea da Batzar Orokorraren xedapen eta zuzentarauei jarraikiz elkarrearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa. Bazkideek baino ezingo dute osatu ordezkaritza-organoa.

Zuzendaritza Batzordea osatuko dutenak honakoak izango dira:

- ☒ Presidentea
- ☒ Idazkaria
- ☒ Diruzaina
- ☐ Idazkaria-Diruzaina (kargu bakarra)
- ☐ Idazkariak bere gain hartu ahal izango du diruzainaren funtzioa (bi kargu ezberdinak dira, eta, batzuetan, pertsona berberak bete ahal izango ditu)
- ☐ Presidenteordea
- ☒ Zenbat bokal gehienez ere: 6
- ☐ Besterik:

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara bost aldiz jarraian, edo, tarteka zazpi aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.

Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak, lau urterako, Batzordeak berriaz baliogabetu ezean. Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.

17. artikulua.- Pertsona fisikoek zein pertsona juridikoen ordezkariak baldintza hauek bete beharko dituzte Zuzendaritza Batzordeko kide izateko:

- a) Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- b) Estatutuaren aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c) Erakundeko bazkide izatea.

18. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, lehendabizi Batzorde Orokorrak izangaia hautatu behar du, eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.

Zuzendaritza Batzordeko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake Batzar Orokorrak.

19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek kasu hauetan utziko dituzte karguak:

- a) Agintealdia bukatzen denean.
- b) Dimititzen dutenean.
- c) Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.
- d) Estatutu hauetako 16. artikulua aplikatuz, Batzar Orokorrak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.
- e) Hiltzen direnean.

Baldin eta kargua uzteko arrazoa "a)" idatz-zatian agertzen dena bada, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

Arrazoa b), c), d) eta e) idatz-zatietan agertzen dena bada, berriz, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu-izendapenak egingo ditu.

Organo honen osaeran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkarteen Erregistroari.

20. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak hauek dira:

- a) Elkarteen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideekin bat etorritik eta haren kontrolpean.
- b) Elkarrekin aurrera eramango dituen ekintzen egitea.
- c) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari aurkeztea, hark onartu ditzen.
- d) Batzar Orokorraren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- f) Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutuetako hutsuneak betetzea, betiere elkarteen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorritik.
- g) Batzar Orokorrak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

21. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen bilkurak presidenteak erabaki edo batzordekide batek eskatzen duen bakoitzean egingo dira. Bilkurako buru presidentea izango da, eta ez balego, presidenteordea; eta horien faltan, batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon behar du bilkuran. Berdinketarik egonez gero, buruaren kalitateko botoa izango da erabakigarria.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu eta akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira.

ZUZENDARITZA-BATZORDEKO KARGUAK

PRESIDENTEA

22. artikulua.- Beregain hartuko du elkarteen legezko ordezkaritza, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatuko ditu. Era berean, aipaturiko bi organo horietako presidentea izango da.

23. artikulua.- Horiez gain, honako eginkizun hauek ere badagozkio:

- a) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorraren bilera-deiak egin, bilerak bukatutzat eman, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea.
- b) Elkarteen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta elkarteen zereginak bultzatu eta bideratzea.
- c) Baliotasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea.

- d) Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.
- e) Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

IDAZKARIA

24. artikulua.- Zehazki, federazioan sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta bazkideen Erregistro Liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, elkarteen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, erakundearen agiri ofizialak zainduz, federazioaren liburuaren eta artxiboen edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketan berri emateko egin beharreko jakinerazpenak eginez agintari eskudunari.

DIRUZAINA

25. artikulua.- Egindako diru-sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar dizkio, eta horrek Batzar Orokorrari, hark onartu ditzan.

BOKALAK (HALAKORIK BADA)

26. artikulua.- Bokalek beren karguei datxekien funtzioak izango dituzte, Zuzendaritza Batzordeko kideak diren aldetik (elkarteen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berak eskatzen dizkiena ere.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK:

ONARTUAK IZATEKO BALDINTZA ETA PROZEDURAK, ETA BAZKIDE-MOTAK

27. artikulua.- Bazkide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsona guztiak izan daitezke elkarteko kide:

- Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez edukitzea.

Eskumena duen organoak bere baitan hartutako erabaki baliodunaren kopia aurkeztu behar dute, eta bertan adieraziko dira bai elkartzeko borondatea, bai pertsona juridikoaren izenean arituko denaren izendapena.

28. artikulua.- Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea, bi bazkideren sinadurarekin eta presidenteari zuzenduta. Presidenteak eskaeraren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean onartu ala ez. Erabakiaren aurkako gora jotzeko errekurtsioa jar dakioke Batzar Orokorrari.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

29. artikulua.- Hauek dira bazkideen eskubideak:

- 1) Elkarteei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak aurkaratzea, aurkaratutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik aurrera zenbatzen hasita egutegiko berrogei eguneko epean.
- 2) Elkartearen gobernu- eta ordezkaritza-organoen osaerari, elkartearen kontu-egoerari eta elkartearen jarduerari buruzko informazioa jasotzea.
- 3) Elkarteko beste kideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkartearen ekintzen garapenaren berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.

- 4) Batzar orokorretarako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
- 5) Elkarteko Estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organismoetan parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.
- 6) Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkartearen ikurra erabiltzea, baldin badu behintzat.
- 7) Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organismoek eskakizunak eta kexak aurkeztea.
- 8) Talde-ekintza sozialetan parte hartzea, eta bazkideentzako tresnak erabiltzea (federazioaren egoitza, liburutegiak, eta abar).
- 9) Diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.
- 10) Edozein unetan bajaran ematea. Bajan eman arren, bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.

30. artikulua.- Bazkideen betebeharrak.

- a) Elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.
- b) Kuotak, zerga bereziak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.
- d) Elkarteko zuzendaritza-organismoek baliotasunez hartutako erabakiei men egin eta erabaki horiek betetzea.

BAZKIDE-IZAERA GALTZEA.

31. artikulua.- bazkide-izaera arrazoi hauengatik galduko da:

1. Hilez gero (edo, pertsona juridikoen kasuan, deseginez gero).
2. bazkidea bere borondatez joanez gero.
3. Honelako egoeraren bat gertatzen bada: estatutu hauetatik ondorioztatutako betebeharrak modu larri ez betetzea, behin eta berriz, eta nahita, edo gauza bera gertatzea Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak hartutako akordio baliodunei dagokienez.

ZEHAPEN-ARAUBIDEA

32. artikulua.- Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak, Zuzendaritza Batzordeak bazkide horiek zehatu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetera eskubideak kentzetik hasi eta elkartetik betiko kanporatzera arteko zehapena ezar daiteke, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.

Horretarako, zehatuak izan daitezkeen jokabideak aztertzeke ikerketa egin dadila erabaki dezake presidenteak. Ikerketaren instrukziogilea idazkaria izango da, eta berak proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurriak.

Zehapena ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, idazkariak ez du horretan parte-hartzerik izango (instrukziogilea delako), eta zehapena ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zehatzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsioa jarri ahalko zaio Batzar Orokorrari.

33. artikulua.- Bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badu, hau da, Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, presidenteak idazkariari agindu diezaioke aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, presidenteak jarduerak artxibatzeke agintzea edo elkartetik kanporatzeko zehapen-espedienteari hasiera ematea erabaki dezake.

34. artikulua.- kanporatzeko zehapen-espedientea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri

emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du botorik izango espedienteko instruktorea izan den idazkariak.

Behin-behineko kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, komunikatuz kanporatze-espedientea Ezohiko Batzar Orokorrari helaraziko zaiola, zeinak behin betiko kanporatzeko erabakia hartuko baitu hala badagokio. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputatuari bazkide-eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Kanporatze-espedientea lehenengo Ezohiko Batzar Orokorrari helaraziko zaio. Batzarrerako deialdia ez bada hiru hilabetetan egiten, gai horretarako bakarrik egin beharko da, Batzordearen erabakia berresteko edo errebokatzeke.

Idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak inputatuak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

35. artikulua.- Behin betiko kanporatze-erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegiara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

36. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan —berak nahi izanda edo zehapena ezarri zaiolako— bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

SORTZE-ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUBIDEA

37. artikulua.- Elkartearen **HASIERAKO ONDAREA** 0,0 eurokoa da.

38. artikulua.- Elkarateak, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:

- a) Ondarezko ekarpenak.
- b) Erabakitzen diren aldizkako kuotak.
- c) Federazioaren ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta lege jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- d) Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat jotzen dituen jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

ELKARTEAREN EKITALDIA ETA EKITALDI EKONOMIKOA urtebetekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.

Elkarateak jardura ekonomikoak —zerbitzu-emateak barne— egitearen ondorioz lortzen dituzten mozkinak elkaratearen xedeak betetzeko bakarrik erabili behar dira. Mozkinak ezin dira banatu ez bazkideen artean, ez horien ezkontideen edo bazkideekin ezkontzaren antzeko harreman afektiboa tarteko bizi diren pertsonen artean, ez eta horien ahaideen artean ere; orobat, mozkinok ezin zaizkie dohain laga irabazi-asmoa duten pertsona fisikoei edo juridikoei.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

39. artikulua.- Estatutuak aldatzea propio horretarako deitutako bazkideen ezohiko batzar orokorrean erabaki behar da. Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

40. artikulua.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, presidenteak Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du. Zuzendaritza Batzordeak egitasmoa onartuko du edo, bestela, lantaldeari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.

Egitasmoa onartuz gero, hurrengo Ezohiko Batzar Orokorrako gai-zerrendan sartzea erabakiko du Zuzendaritza Batzordeak.

41. artikulua.- Batzarrerako deiarekin batera, Estatutuetako aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horiek Batzar Orokorrari helaraziko zaio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira Idazkaritzan.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ONDARE SOZIALAREN ZERTARAKOA

42. artikulua.- Elkartea kasu hauetan desegingo da:

1. Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako Ezohiko Batzar Orokorrean azaldu beharko da.
2. Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
3. Beste elkarte batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
4. Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako.
5. Epai irmo batek federazioa desegitea agintzen duelako.
6. Elkarteen helburuak betetzea ezinezkoa delako.

43. artikulua.-Elkartea deseginez gero, hori erabakitzen duen Ezohiko Batzar Orokorrak Batzorde Likidatzaile bat izendatuko du, dauden funtsez ardura dadin.

Bazkideekiko eta besteekiko elkarte-betebeharrak bete ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, irabazi-asmorik gabeko entitatearen bati edo irabazi-asmorik gabeko ekimenen bati eman beharko zaio.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Eraketa-aktan behin-behineko izendatuak agertzen diren Zuzendaritza Batzordeko kideek egiten den lehenengo Batzar Orokorraren esanetara jarri beharko dute beren izendapena.

AMAIERAKO XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak barne-araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetako aginduak aldatuko.

A handwritten signature in blue ink is located on the left margin. Below it is a circular stamp, also in blue ink, which appears to be an official seal or stamp, though the details are not clearly legible.